



EUSKADI, IKASKUNTZA HERRIA

EUSKADI, PAIS DEL APRENDIZAJE

BIZITZA OSOAN ZEHAR EGITEN DEN IKASKUNTZA

LIBURU ZURIA



AURKIBIDEA

Aurkezpena	3. or.
Sarrera	5. or.
I. Etengabeko ikaskuntzaren garrantzia	8. or.
Etengabeko Ikaskuntzaren dimentsio hirukoitza	9. or.
Etengabeko ikaskuntza eta berrikuntza	10. or.
Etengabeko ikaskuntza eta gizarteratzea	10. or.
Etengabeko ikaskuntza eta hiritar aktiboak	11. or.
Erronka berriak	11. or.
Pertsona ikaskuntza-sistemaren erdi-erdian	11. or.
Paradigma aldaketa	12. or.
Etengabeko ikaskuntzaren finantzaketa	13. or.
Ikaskuntzaren lurraldeak	14. or.
II. Etengabeko ikaskuntza Europan	15. or.
Lisboako gailurra	15. or.
Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Memoranduma	15. or.
Batzordearen komunikazioa: ezagutzaren esparru europarrentzat	16. or.
Etengabeko ikaskuntza hezkuntza-politikaren baitan	17. or.
Hezkuntza-politikaren koordinazio-metodo irekia	18. or.
Etengabeko ikaskuntzaren zeharkakotasuna	19. or.
Solaskide sozialen funtzioa	20. or.
Europako eskualde-dimentsioa	21. or.
III. Etengabeko Ikaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoan	22. or.
Lanbide Heziketako Euskal Plana	23. or.
IKTei lotutako ekimenak	25. or.
Tutoretza eta orientazioa	27. or.
Pertsona helduen hezkuntza	28. or.
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Plana	29. or.
IV. Euskadi ikaskuntzaren herria bihurtzeko estrategia	31. or.
Ikuspegi bateratua: Euskadi, ikaskuntzaren herria	32. or.
Helburu estrategikoak	33. or.
Berariazko helburuak eta adierazleak	34. or.
Errealitatea ezagutzea: baliabideen, oztopoen erronken, ahultasunen mapa	37. or.
2004-2006 ekintza-plana	37. or.
Jarduerak ebaluatzea	38. or.
Estrategiak berriro zehazteak	38. or.



Aurkezpena

2000.ko urteko martxoan Lisboan egindako Europako Kontseiluak funtsezko giltzarria finkatu zuen Europako Batasuneko gizarte, heziketa eta ekonomia politikak norabideratzeko. Ikasi, bizi eta lan egiteko ereduak arin ari dira aldatzen. Horrek esan nahi du ez direla herritarrak aldaketara egokitu beharko duten bakarrak, beraien jarduteko moduak ere aldatu egin beharko lituzkete.

Europako Batzordea, estatu kide eta eskualdeko eta tokiko agintariekin lankidetzan, etengabeko ikaskuntzarako Europako esparrua sortzeko asmoarekin ari da lanean. Esparru horren helburuak honako hauek dira: Lehenik, hiritarrak trebatzea ikaskuntza-eremuetan, enpleguetan, eskualde eta herri ezberdinetan aske ibili ahal izateko. Horretarako, haien ezagupenak eta gaitasunak bultzatuko dira. Bigarrenik, Europako Batasunak dituen arrakasta, gizarteratze, tolerantzia eta demokratizazio helburu eta nahiak betetzea.

Ikasketa iraunkorrak bermatu behar du Europako herritarrek gizarte eta ekonomia eraldaketak dakartzan eskaeretara egokitzeko aukera berak izatea, eta hala, Europaren etorkizuna sortzen parte hartzeko aukera izatea.

Instituzioen arteko estrategia parte-hartzaile eta hitzartu baten bidez, honako hau lortu behar dugu:

- gizarte integratzaile bat osatu behar dugu, pertsona orori bizitza osoan zehar kalitatezko ikasketak izateko aukera berak eskainiko diona, eta heziketa eta prestakuntza arautuko duten legeak batik bat pertsonen behar eta nahietan oinarrituko dituena;
- heziketarako, prestakuntzarako eta ordaindutako lana antolatzeko ohiturak aldatu behar ditugu, bizitzan norberak ikas dezan ikasketak, lana, astialdia eta senitarteko bizitza nola lotu;



- heziketa eta prestakuntza maila orokor handiagoak lortu behar ditugu sektore guztietan, kalitate oneko heziketa eta prestakuntza eskaintza bermatu, eta, era berean, herritarren ezagutza eta gaitasunak lan baldintza, lekuen antolamendu eta lan egiteko metodo aldaketei ongi egokitzen zaizkiela ziurtatu;
- jendea bultzatu eta prestatu egin behar dugu, bizitza publiko modernoko eremu guztietan parte har dezan, eta, batez ere, gizarte eta politika arloetan

Xede bateratu hauekin guztiekin, “Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza” Liburu Zuri honen helburua da: Euskadi ikaskuntza-herri bihurtzeko estrategi koherente bat garatu ahal izateko, oinarri edo marko izatea. Horren bidez, lortuko dugu etengabeko ikaskuntzarako European esparru bat izatea.

Anjeles Iztueta Azkue

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua



Sarrera

2000ko martxoko Lisboako Europako Kontseiluak Europar Batasuna ezagutzen oinarritutako munduko gizarterik lehiakorrena eta dinamikoena bilakatzea ezarri zuen helburu estrategikotzat. Helburu hori Stockholmeko Kontseiluan berretsi zen, 2001eko martxoan. Hori guztia Europako gizarteak ezagutzaren arorako bidean izan duen bilakaera ukaezinaren ondorio izan da, eta horrek, jakina, bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean eragin nabarmena izan du.

Ezagutzaren gizarteak, beste zenbait joera sozio-ekonomiko zabalekin batera (hala nola, globalizazioa, informazioaren teknologien eragina, aldaketa demografikoak eta familia-egituraren aldaketak), onura adina erronka dakartzkio gizarte osoari.

Gizakiok komunikatzeko eta higitzeko aukera berriak eta handiak ditugu. Aukera horiek aprobetxatu eta gizartean parte-hartze bizia eduki ahal izateko ezinbestekoa da etengabe ezagutzak eta gaitasunak biltzen joatea; izan ere, horri esker, gure gizarteak baldintza lehiakorragoak izango ditu, ezagutzak eta gaitasunak hazkunde ekonomikoaren eragile garrantzitsua baitira.

Dena den, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzak kontzeptu ekonomiko soila gainditzen du, eta gizarteak demokratikoagoak eta irekiagoak izaten ere laguntzen du. ELGE¹ren txosten baten arabera, ikaskuntzan eta giza kapitalean inbertitzeak, BPG handiagoa eragin ez ezik, gizartearen parte-hartze handiagoa eta ongizate handiagoa ere badakar.

Batzordearen "Etengabeko Ikaskuntzako esparru europar bat gauzatzea" komunikatuaren² arabera, *hauek izan behar dute esparru europar horren helburuak: batetik, hiritarrak gaitzea ezagutzaren gizarteari aurre egin ahal izan diezaioten, betiere, askatasun osoz era askotako ikaskuntza-eremuetan, enpleguetan, eskualdeetan eta herrialdeetan higituz eta xedea ikastea izanik; eta, bestetik, Europar Batasunaren eta kide izateko herrialde izangaien helburuak eta*

¹ Financing Education – Investments and Returns: Análisis of the World. Education Indicators 2002 - OECD

² Comunicación de la Comisión: Hacer realidad un espacio europeo del aprendizaje permanente – COM(2001)678 final de 21.11.2001



desioak betetzea, ongizateari, integrazioari, tolerantziari eta demokratizazioari dagokionez.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan, abian daude zenbait plan eta ekimen Euskadi gizarterik aurreratuenen artean kokatu ahal izateko oinarriak ezartzeko. Ildo horretatik, *Konbergentzia errealerako, gizarte-kohesiorako eta modernizatorako* Euskadi 2000Hiru edo eGIPUZKOA ekimenak behin betiko bultzada eman du Euskadin informazioaren gizartea garatu ahal izateko.

Ezagutzaren gizarteari dagokionez, Eusko Jaurlaritza etengabeko ikaskuntzarekin zuzenean lotutako jarduerak ari da garatzen. Esate baterako, 2000. urtearen amaieran, dekretu bat³ onartu zuen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarekin lotutako jarduerak sustatzeko; eta 2001eko udaberrian, gizarteari eta gainerako erakundeei kontsulta egiteko prozesua jarri zuen abian. Bestetik, Lanbide Heziketa eta Kualifikazioen Euskal Institutuak Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Europar Erkidegoen Batzordearen Memorandumaren⁴ moldaketa bat argitaratu zuen.

Memorandumaren argitalpenarekin batera, Eusko Jaurlaritzak bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko jardunaldiak egin zituen Bilboko Euskalduna Jauregian, 2001eko apirilean. Jardunaldi horietan *Euskadi, ikaskuntza herria* leloa proposatu zuten. Gainera, kontsulta-faseari hasiera eman zitzaion, enpleguari eta hezkuntzari buruzko *lanbide.net* atarian horretarako abian ipinitako foro irekiaren bidez. Kontsulta-prozesu horri "EA Eren ekarpena Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Europar Batzordearen Memorandumari" izeneko dokumentuarekin eman zitzaion amaiera. Dokumentua 2001eko ekainaren 5eko Gobernu Kontseiluan onartu, eta Europako Batzordera⁵ igorri zen. 2001eko maiatzeko hauteskundeen ondoren osatutako gobernuan, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaritza sortu, eta Lanbide Heziketako zuzendaritzarekin batera Sailburuordetza bat osatu zen; eta horrek erakusten du zer nolako garrantzia ematen dion Eusko Jaurlaritzak alor horri.

³ 284/2000 Dekretua, abenduaren 26koa, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak arautzen dituena (249. zbk. EHAA, 2000ko abenduaren 30ekoa). Dekretu hori ondorengo dekretuak ordeztu zuen: abenduaren 17ko 298/2002 Dekretuak (EHAA 248 zk., 2002ko abenduak 30).

⁴ Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Memoranduma – SEC(2000) 1832 de 30.10.2000

⁵ Europar Batasuneko web orrian kontsulta daiteke, bai gaztelerazko bertsioan, bai ingelesezko laburpenean: http://europa.eu.int/comm/education/life/report_en.html



Gogoeta-prozesu horren ondorioz, eta dokumentu honen bidez, urrats garrantzitsua egin nahi da: EAEko etengabeko ikaskuntzari edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko estrategia bilduko duen Liburu Zuria sortzea eta garatzea.

Lehen atalean, ikaskuntzari buruzko dimentsio berri horren garrantzia azaltzen da zenbait ikuspuntutatik: berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako ekonomiaren ikuspuntutik, hezkuntza-politikaren ikuspuntutik, enplegu-politika aktiboen ikuspuntutik eta gizarteratzeko eta gizarte-kohesioko politiken ikuspegitik.

Bigarren atalean, bizitza osoan zeharreko ikaskuntza European nola landu aztertzen da.

Hirugarren atalak Euskal Autonomia Erkidegoan etengabeko ikaskuntzari buruz egin diren ekimenik azpimarragarrienak azaltzen ditu.

Laugarren eta azken atalak, politika berria eta estrategia diseinatzeko irizpideak ematen ditu, betiere, Euskadi etengabeko ikaskuntzaren herri bilakatzeko.

Estrategia hori ekintza-plan batean zehaztu beharko da. Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru- eta udal-erakundeek (betiere, bakoitzari dagozkion gaitasunen arabera) bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren alorrerako helburuak, neurriak eta egutegia zehaztuko dituzte.



I. Etengabeko ikaskuntzaren garrantzia

Etengabeko ikaskuntza ezagutzan eta informazioaren gizartean oinarritutako ekonomiaren elementu oso garrantzitsua bilakatu da. Bai hazkunde ekonomikoaren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren ikuspuntutik, bai gizarteratzearen eta aukera berdintasunaren ikuspuntutik, helburua garbia da: herritarrei berrikuntza teknologikoaren erronkei aurre egiteko eta ekoizpen-ereduen eta gizartearen aldaketetara ohitzeko beharrezkoak diren bitartekoak ematea. Horretarako eta gizartean parte-hartze bizia izateko, ezinbestekoa da herritar guztien etengabeko ikaskuntza erraztuko eta sustatuko duen estrategia lantzea.

Gizakiek ezagutzan oinarritutako ekonomian eta gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakonetara moldatzeko gai izan behar dute. Aldaketa horien adierazgarri dira, bereziki, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak; izan ere, etengabe aldatzen ari dira eta nonahi agertzen zaizkigu. Gizakiek etengabe eguneratu, zabaldu eta berritu behar dituzte beraien ezagutzak eta gaitasunak. Gainera, informazioaren gizartera moldatzeko prozesu horrek bazterketa-arriskuei aurre egiteko balio beharko luke; hau da, gizartearen zati garrantzitsu bat garapen teknologikoetatik at gelditzeko arriskuari aurre egin beharko litzaioke, bazterketa digital edo analfabetismo digitalaren antzeko zerbait gerta ez dadin. Izan ere, horrek gaur egungo ezagutza-desberdintasunak areagotuko lituzke, eta desberdintasun horiek oso arriskutsuak dira, epe ertainera beste desberdintasun batzuk sortzen dituztelako, bai lana aurkitzeko orduan, bai eta enpresen moldatze-, berritze- eta lehiakortasun-gaitasunean. Ikuspegi horretatik, behar-beharrezkoa da, baita ere, biztanleriaren gutxikako zahartzeak dakartzan erronkei behar bezala erantzutea, eta adinekoenei beraien gaitasunak areagotzeko eta gaurkotzeko aukera ematen zaiela bermatzea.

Bestalde, pertsonak dira ezagutzaren gizarteetako protagonistak. Funtsezkoa da ezagutzak sortzeko eta etengabe eraldatzen ari den oinarriaren gainean modu eraginkor eta adimentsuan erabiltzeko giza ahalmena. Ahalmen hori erabat garatzeko, herritarrok euren bizitzen kontrola hartu nahi eta hartu ahal izan behar dute, eta azken finean, herritar aktibo bihurtu behar dute. Herritartasun aktiboaren kontzeptuak bizitza ekonomiko eta sozialaren maila



guztietan parte hartzearen egokitasuna eta parte hartzeko modua ekartzen ditu gogora; baita horretan saiatzeak dakartzan aukerak eta arriskuak ere, eta horrek zer neurritan ekartzen dion pertsona bakoitzari bizileku eta garapen-esparru duen gizarte horren zati izatearen sentimendua, eta bertan hitzez eta botoz gozatzearena.

Egoera horren aurrean, hezkuntzari eta prestakuntzari beste ikuspuntu bat eman behar zaie, gizartearen eta ezagutzan oinarritutako ekonomiaren erronkei era koherentean eta integralean aurre egin ahal izateko: etengabeko ikaskuntza edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntza. Ikuspegi berriaren berrikuntzarik azpimarragarriena **politika orokorraren** diseinua da, adin guztietako herritar guztiak ikaskuntza-ekimenetan inplika daitezzen lortzeko. Politika orokor horrek aurretik egiten ari ziren ekimen guztiak bildu beharko ditu eta, gainera, gizarte osoak parte hartu ahal izateko moduko jarduerak eskaini. Horrela, lanbide-heziketaren edo bokaziozko lanbidearen eremu hertsia gainditzea lortu eta ikaskuntzaren ikuskera askoz zabalagoa izango da, helburu desberdinak betetzeko diseinatua, premia desberdinetara egokituriko sarbide-mota zenbaitekin, ezagutzak eskuratzeko forma desberdinen arabeko irakas-metodologiekin. Ikaskuntza bizitzaren garai zehatz batera –ikasle-garaira– mugatzen duen ideia gainditu eta bizitza-ziklo osora zabaltzen da, nahiz eta intentsitatea ez den garai guztietan berdina izango. Horretaz gainera, ikaskuntza testuinguru formaletara, arautuetara eta erakundeen testuingurura (ikastetxeak, lanbide-heziketako ikastegiak eta unibertsitateak) mugatzen duen ideia ere gainditu egiten da. Horren ordez, testuinguru ez formaletan eta informaletan (eguneroko bizitzan, norberaren bizitzan, familian, bizitza profesionalean, aisialdian, borondatezko lanean...) jasotako ikaskuntza ere aintzat hartzen hasiko da.

Etengabeko ikaskuntza, hitz gutxitan, hezkuntzaren eta prestakuntzaren alor guztiak –elementu ez formalak barne– bere gain hartzen ahalegintzen da herritarren bizitza osoan zehar.

Etengabeko Ikaskuntzaren dimentsio hirukoitza

Etengabeko Ikaskuntzaren politika integralak dimentsio hirukoitza du: berrikuntza, gizarteratzea eta herritar aktiboak.



Etengabeko ikaskuntza eta berrikuntza

Ezagutza erakundeen eta lurraldeen baliabide estrategikorik garrantzitsuen bilakatu da. Erakundeak, ezinbestean, amaierarik gabeko lasterketan murgilduta daude: beren kudeaketa hobetu behar dute, kalitate osoko parametroak ezarri behar dituzte, etengabe berritzen jardun behar dute, eta ingurune berrietara egokitu behar dute (elkartze-modu berrietara, lehiakortasun-eremu berrietara eta arau berrietara). Horren guztiaren ondorioz, erakundeek hainbat helburu ezartzen dizkiote beren buruei: lehiakortasuna eta berrikuntza areagotzea; produktuak eta zerbitzuak hobetzea, bai eta horien aurkezpena ere; eskaintza areagotzea; produktu eta zerbitzu horien alderdi ekologikoaz eta ingurugiro-alderdiaz jabetzea, bai eta segurtasun-alderdiaz ere; eta bezeroaren beharretara egokitzea.

Informazioaren gizartean eta ezagutzan oinarritutako ekonomian, era askotako aldaketa teknologikoak, ekonomikoak eta sozialak ikaragarriko abiadan gertatzen dira eta, gainera, gero eta azkarrago. Aldaketa horiek errotikoak direnez, ezinbestekoa da herritarrei –agente ekonomiko izanik– behar adina oinarritzko gaitasun edo trebetasun ematea, ezagutzak gaurkotu, bereganatu, igorri eta partekatu ahal izan ditzaten eta etengabe aldatzen ari diren egoeretara moldatzeko gaitasun handiagoa izan dezaten. Hori guztia dela eta, helburua bikoitza da: batetik, biztanleria aktiboari berrikuntza teknologikoei aurre egiteko beharrezkoak diren bitartekoak ematea; eta, bestetik, lanik gabe daudenak ikaskuntzaren bidez jarduera ekonomikoetarantz hurbiltzea. Ezinbestez, kalitateari eta enplegu-politika aktiboari buruzko teoriak oso kontuan hartzen hasiak dira aldaketa horiek. Bai erakundeek, bai pertsonak sarean ikasteko eta lan egiteko beharra dute.

Etengabeko ikaskuntza eta gizarteratzea

Etengabeko ikaskuntza gizarteratzeko funtsezko ekintza positiboko erreminta ere bada. Pertsonak autonomia handiagoa lortzen dute, eta norberaren bizi-proiektuak, garapen pertsonala eta profesionala diseinatzeko erabakiak hartzen eta erantzukizunak bereganatzen laguntzen die. Ildo horretatik, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren estrategiak egoera okerreanean daudenei



(sexu, adin, maila sozial edo etniaren ondorioz) lagun diezaieke eta lagundu behar die, batez ere. Normalean, pertsona horien hezkuntza- edo heziketa-maila baxuagoa izaten denez, gaurkotutako oinarrizko gaitasuna lortzen badute, lana aurkitzeko eta gizartean txertatzeko aukerak areagotu egingo dira.

Etengabeko ikaskuntza eta hiritar aktiboak

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzak hiritar aktiboak izatea ere errazten du, ezagutza handituz. Ezagutzak izaera kritikoa sendotzen du eta zenbait gauza hobeto ulertzen laguntzen du, besteak beste: gizartearen gorabeherak; banakoen eta herritarren eskubideak eta betebeharrak; erakunde-sistema politikoaren eta ekonomikoaren funtzionamendua, tokikoa, eskualdekoa, estatukoa zein Europakoa izan. Horri guztiari esker, zuzenean eragiten dioten erabakiak hartzeko orduan zeresan handiagoa izango du herritarrak, eta herritarraren partehartzea bultzatuko da gizarte- eta kultura-erakundeetan, alderdi politikoetan, sindikatuetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, GKEetan, komunikabideetan eta abarretan. Herritartasun aktiboak gobernatzeko modu berriak dakartza; izan ere, herritarren eta erakunde publiko eta pribatuen parte hartzea sustatu behar dute politikak diseinatzeko eta ezartzeko.

Erronka berriak

Etengabeko ikaskuntzaren dimentsio hirukoitz horrek erronka berriak planteatzen dizkie hezkuntza- eta gizarte-politikei; eta, gainera, zenbait ikuspegitatik gertatzen da hori, hasi ikuspegi finantzariotik eta antolaketa mailara arte.

Pertsona ikaskuntza-sistemaren erdi-erdian

Ezagutzaren gizartearen oinarri ekonomikoa ondasun eta zerbitzu materiagabeak sortzea eta trukatzea da. Horrek ondorengo hau dakar: gizakiak ezagutzak modu eraginkorrean sortzeko, erabiltzeko eta partekatzeko gai izatea, etengabe aldatzen ari den oinarri batean. Beraz, gizakiek ikaskuntza-jarduera koherenteak planifikatu behar dituzte bizitza osoan zehar,



eta horretarako, beharrezkoa da behar bezainbateko orientazioa eta hezkuntza-eskaintza izatea, herritarrengandik hurbila, beraien beharretara egokitua eta maila pertsonalean zein profesionalean egokia.

Gizakia ikaskuntza-sistemaren muina bilakatu da. Gizakiari erantzukizunak ematen zaizkio, eta lagundu eta aholkatu egiten zaio, bere berariazko ikaskuntza-beharrei uneoro errepara diezaien eta hezkuntza-ibilbide indibidualizatua diseinatzen inplika dadin. Etengabeko ikaskuntzako estrategiak **gizakiari laguntza** eskaini behar dio: ikaskuntza-aukerei eta ikaskuntza-baldintzei buruzko informazioa (kostuak, egutegiak, tokiak, ordutegiak, eskatzen diren aurretiko ezagutzak, materialak, metodologiak...) eman behar du, eta esparru guztietakoa, hurbilenekotik Europako esparruraino. Horrekin batera, kalitatezko aholkularitza edo bitartekaritza eskaini behar du, ikaskuntza-ibilbide indibidualizatuak diseinatzea erraztu, eta herritar guztiak sustatu, ezagutzaren gizarteak eskatzen dituen oinarritzko gaitasunak lor ditzaten.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo faseetan, ikaslea muina izateak hezkuntza-eskaintza bere beharretara egokitzea dakar, eta, beraz, alderantziz ez izatea. Hortaz, ikaskuntza gizakiaren askatasun pertsonala gauzatzea da, pertsonaren erantzukizuna izango da eta bera izango da protagonista. Gizakiak behar duena eta nahi duena ikasiko du eta ez hezkuntza- eta irakaskuntza-merkatuan eskaintzen zaiona.

Paradigma-aldaketa

Eraldaketa horiek guztiek eta etengabeko ikaskuntzaren dimentsio hirukoitzak aldaketa kulturala dakarte; hau da, **pentsatzeko moduaren aldaketa**. Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren ideari jarraituz, berebiziko garrantzia duten aldaketak gertatzen dira:

- bizi-zikloa –antolamendu sozialaren eta ekonomikoaren oinarria– ulertzeko modua aldatzen da, difuminatu egiten direlako bizi-faseen arteko mugak, orain arte nahiko zurrinak zirenak; hau da, haurtzaroan eta nerabezeroan eskolatzea (batzuetan, hirugarren



mailako irakaskuntzaren aukerarekin luzatu egiten da), heldutasunean lan egitea eta hirugarren adinean aisialdiaz gozatzea;

- norberaren ikaskuntza-ibilbideak diseinatzeko erantzukizuna sortzen da (lehen, berriz, irakaskuntza arautuaren derrigorrezko curriculumak soilik hauta zitezkeen);
- ikasketak ulertzeko modua aldatzen da, ikaskuntza ondo pasatzekoa eta parte-hartzailea bilakatzen baita;
- aisialdiaren eta lanaldiaren antolamendua ere aldatzen da.

Horri guztiari esker, ikaskuntza-kultura berria sortu da, eta bertan gizarte osoa inplikatzeko da. Horrela, orain arte hezkuntza-izaerarik ez zuten zenbait erakunde, elkarte, enpresa eta zentro, ikaskuntza eskaintzen eta errazten duten edo bitartekaritza lana egiten duten erakunde bilakatu dira, edo helburu hori lortzeko gaitasuna dute, bederen. Ohiko irakaskuntza-zentroekin batera (eskolak, institutuak, lanbide-heziketako ikastetxeak, unibertsitateak, akademiak, atzerriko zein bertako hizkuntza-eskolak, musika kontserbatorioak...), paradigma berriari jarraituz, beste erakunde batzuk ere irakaskuntza-erakundetzat hartuko dira: enpresak eta enpresa-erakundeak, merkataritza-ganberak, sindikatuak, kolegio profesionalak, haurtzaindegiak eta zaharren egoitzak, teknologia elkartegiak eta ikerketa-zentroak, fundazioak eta elkarteak, bibliotekak, ludotekak, kultur etxeak, liburutegiak eta ziberkafeak, kongresu-jauregiak, museoak eta erakusketak, auditorioak, antzokiak eta zinemak, parke tematikoak, turismo-ikuskizunak, komunikabideak, Interneteko atariak eta Internet-hornitzaileak, bai eta osasun-zentroak eta garraiobideak ere.

Etengabeko ikaskuntzaren finantzaketa

Etengabeko ikaskuntzak bere osotasunean proposatzen dituen erronka berriak direla eta, ezinbestekoa da finantzaketa-formulak birplanteatzea, bai eta baliabide publikoen bidezko finantzaketaren (zergak, Europako egitura-funtsak edo Europako programak, kotizazio sozialak...) eta horren banaketaren gardentasuna bermatzea ere. Horren haritik, parte hartzen duten alde guztiek (publikoek, erdi-publikoek eta pribatuek) beren gain hartu beharko dute ikaskuntza finantzatzeko dagokien erantzukizuna.



Era askotako formulak daude etengabeko ikaskuntza finantzatzeko: oso-osorik baliabide publikoen bidez finantzatzea, finantzazio pribatua izatea, eta horien arteko guztiak. Dena dela, orain arte gehien erabili den formula eskaintza handitzeko laguntza publikoa ematea izan da, eskaintza egiten dutenei laguntzak, dirulaguntzak eta subsidioak emanez. Hala ere, behar-beharrezkoa da finantza-baliabide osagarrietara edo alternatiboetara jotzea, bai baliabideak zuzen banatzeko, bai pertsonen inplikazio handiagoa lortzeko. Esate baterako, horrela gertatzen da eskariari garrantzi handiagoa ematen dioten formulekin; hala nola: banakako ikaskuntza-kontuak (*individual learning accounts*), ikaskuntza-txekeak, kredituak edo antzeko beste formula batzuk, zerga-kenkariak edo -hobariak. Horrelako gehienetan, dirulaguntzak erakunde publikoek banatzen dituzte, baina interesa duen pertsonaren parte-hartzearekin, bai eta finantza-erakundeen eta enpresen parte-hartzearekin ere.

Ikaskuntzaren lurraldeak

Herritar guztien ikaskuntza sustatzen den lurraldeak ikaskuntza-lurralde bilakatzen dira: ikaskuntza-hiriguneak, ikaskuntza-eskualdeak edo ikaskuntza-herrialdeak. Horretarako, botere publikoek sektore publikoa eta sektore pribatua etengabeko ikaskuntzarantz hurbiltzeko estrategiak sustatuko dituzte, eta herritarrei bizitza osorako ikaskuntza-aukerak eskaintzen dizkiete. Lurralde horietan, etengabeko ikaskuntza politika garrantzitsu guztietan hartu beharko da kontuan; horrela, zeharkako izaera hartuko du aurrera eramaten diren jarduera guztietan. Hori, noski, ez da erretorika hutsa: ezagutzan oinarritutako etengabeko ikaskuntzako estrategia behar baitu uneoro.



II. Etengabeko ikaskuntza Europan

Lisboako gailurra

Etengabeko ikaskuntza edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntza Europar Batasuneko ardatzik garrantzitsuenetako bat bilakatzen ari da **Lisboako Kontseilu Europarrak** 2000ko martxoan onartutako helburu estrategiko berria lortu ahal izateko. Alegia, hamarkada batean, Europar Batasuna ezagutzen oinarritutako munduko gizarterik lehiakorrena eta dinamikoena bilakatzeko, ekonomikoki modu jasangarrian hazteko gaitasuna izanik, lanpostu gehiago eta hobeak sortzeko eta kohesio sozial handiagoa lortzeko gai izango den ekonomia bilakatzeko. Ildo horretatik, helburu estrategiko hori lortu ahal izateko, Lisboako Kontseiluak esplizituki onartu zuen giza baliabideetan inbertitzeak berebiziko garrantzia duela. Horrekin batera, hezkuntza- eta prestakuntza-sistema modernoak eta eraginkorrak ere ezinbestekoak direla onartu zuen, eta horiek etengabeko ikaskuntzaren bidez indartu eta osatu beharra zegoela horien guztien zeharkako ardatza baita. Horretarako, lan-metodo berri bat ezarri zen: koordinazio-metodo irekia. Metodo horren arabera, bai Europar Batasunak, bai bertan parte hartzen duten estatuek (bai eta eskualdeek ere) modu koordinatuan egin beharko dute lan, eta, besteak beste, giza baliabideei orain arte eman izan zaien garrantzia baino garrantzi handiagoa eman behar zaie, ezagutzen oinarritutako ekonomiaren giltzarrietako bat baita.

Gero, 2000ko ekaineko **Feirako Kontseilu Europarrak** Europar Batasuneko estatuei, Europako Kontseiluari eta Europako Batzordeari estrategia koherenteak eta neurri praktikoak hartzeko eskatu zien –bakoitzak dituen eskumenen arabera–, guztiontzako etengabeko hezkuntza sustatzeko.

Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Memoranduma

Nahiz eta **1996. urtea Etengabeko Ikaskuntzaren Europako urtea** izendatu zuten, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko batasuneko ekintzek ez zuten indar handiegirik izan



“**Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Memoranduma**”⁶ argitaratu zen arte. Memorandum hori 2000ko azaroan argitaratu zuen Europar Batasunak, Lisboan ezarritako erronkei eman beharreko erantzuna zehazten joateko. Horren bidez, memorandumak Europa mailako eztabaida antolatu zuen funtsezko sei mezuren inguruan: guztiontzako oinarrizko prestakuntza berriak, giza baliabideetan inbertsioak areagotzea, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren berrikuntza, ikaskuntza aintzat hartzea, orientazioa eta aholkularitza birplanteatzea, eta ikaskuntza etxeetara hurbiltzea.

Batzordearen komunikazioa: ezagutzaren esparru europarrerantz

Interesa zuten aldeek Memorandumari egindako ekarpenetan oinarrituta, eta Feirako Kontseiluaren agindua (etengabeko ikaskuntzari buruzko estrategia koherenteak sortzea) betetzeko bitarteko izateko helburuz, 2001eko azaroan, Europako Batzordeak komunikazio bat eman zuen argitara: *Etengabeko ikaskuntzako esparru europarra gauzatzea*⁷. Komunikazio horren bidez, bi helburu bete nahi izan zituen batzordeak: batetik, Etengabeko Ikaskuntzako Esparru Europarra sortzen laguntzea; eta, bestetik, etengabeko ikaskuntzaren estrategia koherenteen eta globalen oinarrizko osagaiak identifikatzea. Europako espazio horri dagokionez, batzordeak *ekintza-plan* bat ere erantsi zuen komunikazioan herritarren higikortasuna errazteko eta gaitasunak eta prestakuntzak aintzat hartzeko. Gainera, komunikazioak honela definitu zituen etengabeko ikaskuntzaren estrategiak: ikaskuntzarekin lotutako jarduera guztiak koordinatzeko eta osatzeko eratu diren esparru estrategikoak, gertatzen diren eremua edozein dela ere.

Txosten horretan, Europako Batzordeak adierazi zuen Europar Batasuneko estatuek estrategia koherenteak eta orokorrak aplikatzeko beharra zegoela, eta horretarako, behar-beharrezkoa da Europa mailako ekintza itundua egitea, guztion adostasunez zehaztutako lehentasunen arabera. Txosten horretan, gainera, etengabeko ikaskuntzako tokiko lankidetzak edo lankidetzak-elkartek sortzeko beharra zegoela azpimarratzen da.

⁶ *Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Memoranduma*. SEC (2000) 1832, 2000.10.30ekoa.

⁷ *Etengabeko ikaskuntzaren Europako espazioa errealitate egitea*. KOM (2001) 678, 2001.11.21eko amaiera



Etengabeko ikaskuntza hezkuntza-politikaren baitan

Aldi berean eta Lisboako Gailurraren ondorioz, Europar Batasuna hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorreko Europa mailako koordinazio-prozesu bati hasiera emateko lanean ari da, eta hor etengabeko ikaskuntza ardatz nagusietako bat izango da. Berriro ere, eta helburu estrategiko berria betetzeko asmoz, Lisboako Europako Kontseiluak ondorengo hau eskatu zion Hezkuntza Kontseiluari: Europako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzei buruzko gogoeta orokorra egin zezan, ezagutzan oinarritutako ekonomiaren eta gizartearen erronketara egokitzeke.

2001eko martxoko Stockholmeko Europako gailurrean, **hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzei buruzko txostena**⁸ aurkeztu zen. Txosten horretan, kontseiluak hiru helburu estrategiko zehatu zituen, hamarkada honetarako, Europar Batasunarentzat, eta horien artean, etengabeko ikaskuntzak toki nagusia beteko du. Ondorengo hauek dira hiru helburu estrategikoak: Europar Batasuneko hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea; pertsona guztiek hezkuntza- eta prestakuntza-sistematik eskuratzeko aukera izatea; eta hezkuntza- eta prestakuntza-sistematik mundura zabaltzea. Hiru helburu estrategikoak, bestalde, beste hamahiru helburu zehatzetan bereizita daude; eta, hain zuzen ere, Europa mailako sistemak helburu zehatz horien arabera koordinatuko dira. Helburu horiek 2010. urtera artekoak diren arren, 2004. urtean, helburu horien tarteko berrikusketa egingo da.

2002ko otsailaren 14an, Europako Kontseiluak eta Europako Batzordeak helburu zehatzei buruzko **zehaztutako lan-programa**⁹ onartu zuten. Lan-programa hori 2002ko udaberrian Bartzelonan egindako Europako Gailurrean aurkeztu zen. Programa hezkuntzari eta prestakuntzari buruzko lehentasunezko gaien Europako agenda bilakatu zen, eta 2010 arteko koordinazio- eta garapen-lanak horren arabera egingo dira.

⁸ 2001eko otsailaren 14ko Hezkuntza Kontseiluaren Erabakia, Europako Batzordearen proposamen batean oinarritua KOM(2001) 59 amaiera.

⁹ 2002ko otsailaren 14ko Hezkuntza Kontseiluaren Erabakia, Europako Batzordearen proposamen batean oinarritua KOM(2001) 501 amaiera.



Bestalde, 2002ko otsailaren 13an, Europako Batzordeak **gaitasunei eta higikortasunari buruzko ekintza-plana**¹⁰ onartu zuen, 2005 urterako, Europar Batasuneko langileen lan-higikortasunak eta higikortasun geografikoak dituzten oztopoak desagerrarazteko. Ekintza-plan horretan, 25 neurri aurreikusten dira eta horietako askok lotura zuzen-zuzena dute etengabeko ikaskuntzarekin.

Hezkuntza-politikaren koordinazio-metodo irekia

Zehaztutako lan-programa hori abian jartzeko, Lisboako Gailurrean adostutako **koordinazio-metodo irekia** aplikatuko da, hori baita praktika zuzenak Europa mailan hedatzeko eta Europar Batasunaren helburu nagusien inguruko konbergentzia handiagoa lortzeko modua. Koordinazio-metodo irekiak Europar Batasuneko estatuen helburu europar bateratuei buruzko zenbait koordinazio-formula zehazten ditu, eta, printzipioz, ondorengo tresnak erabiliko ditu: estrategiak; jarraibideak; helburuak eta egutegiak zehaztea; aholkuak; *benchmarking* eta adierazleak zehaztea, praktika onenak alderatzeko metodo gisa; homologoen arteko kontrolak egitea, eta ebaluazioa.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren alorrean, koordinazio-metodo irekia modu desberdinean ezarriko da helburu zehatz bakoitzean; eta horietako bakoitzak bere egutegiak izango ditu, nahiz eta, 2004 urterako, helburu guztietarako koordinazio-lanak hasita egongo direla aurreikusten den. Dena den, azpimarratzekoa da ikaskuntza- edo hezkuntza-alorretan, besteak beste, eskumena ez duela Europako Batzordeak, eta Europar Batasunaren eskumenak ere mugatuak direla: higikortasuna bermatzea eta prestakuntzen aintzatespena. Hori dela eta, metodo irekia oso tresna baliagarria da Europa mailako koordinazioa errazteko, kide diren estatuen eskumeneko alorretan, eta, beraz, batasunaren eskumenekoak ez diren alorretan.

Beste alde batetik, garrantzitsua da kontuan hartzea Europan estatu kideei buruz egindako aipamena eskualdeei ere egin beharko litzaiekeela eta, batez ere, aipatzen diren alorren inguruan eskumenak dituzten eskualdeei. Izan ere, Europako erakundeen eta estatu



kideen artean Europan adosten den guztia lurralde guztietan islatu beharko litzateke, baldin eta batasuneko benetako jarduera izatea eta Europar Batasun osora hedatzea lortu nahi bada.

Etengabeko ikaskuntzaren zeharkakotasuna

Gainera, Europar Batasuna etengabeko ikaskuntzaren **zeharkako izaera** beste jardueraremu interesgarri batzuetan ere sustatzen ari da. Esate baterako, Europako enplegu-estrategian etengabeko ikaskuntzari buruzko zeharkako jarraibidea erantsi da dagoeneko, eta batasuneko estatuek aurkezten dituzten enpleguari buruzko Ekintza Plan Nazionaletan jaso beharko da. Bestetik, *Etengabeko ikaskuntzako esparru europar bat gauzatzea* komunikazioak batasuneko zenbait prozesuren, strategiaren eta planen artean sinergiak sortzeko beharra azpimarratzen du; besteak beste, Hezkuntza- eta Prestakuntza-sistemaren Etorbizuneko Helburu zehatzen¹¹, Europako Enplegu-Estrategiaren, Europako Agenda Sozialaren, Gaitasunei eta Higikortasunari buruzko Planaren, *eLearning* ekimenaren eta Gazteriari buruzko Liburu Zuriaren artekoak. Horrela, Etengabeko Ikaskuntzari buruzko Europako Espazioa Ikerketari eta Berrikuntzei buruzko Europako Espazioarekin bat egitea lortuko da, Bartzelonako Gailurrean Ezagutzaren Europako Eremua deitutakoa sortzeko.

Feirako Kontseiluak guztiontzako etengabeko hezkuntza sustatzeko estrategia koherenteak eta neurri praktikoak zehazteko gomendioa egin zuen; eta komunikazioan hori bi modutan zehaztu da: lehendabizi, batasuneko estatu guztien arteko jarduerarako **estrategia-esparruak** sustatu dira, eta, ondoren, esparru horien oinarritzko osagaiak zein diren zehaztu da, Etengabeko Ikaskuntzako Europako Espazioa eraikitzeko.

2002ko martxoaren 15 eta 16an Bartzelonan egin zen gailurrean, alor horretan orain arte lortutako aurrerapenak berretsi ziren eta etorkizunerako aurreikusitako lanak ontzat eman ziren. Gainera, batetik, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren funtzioa sendotzeko beharra azpimarratu zen Europako Enplegu Estrategia berrikustean; eta, bestetik, adinekoenak lan-

¹⁰ KOM (2002) 72, 2002.02.08koa

¹¹ 2002ko otsailaren 14ko Kontseiluaren Ondorioak, (EEAO 2002/C 58/1)



merkatuan jarraitzeko aukerak handitu behar zirela, benetan etengabeko ikaskuntzara heltzeko aukera zutela bermatuz.

Solaskide sozialen funtzioa

Lisboako Europako Kontseiluaz geroztik, gero eta gehiago aitortu da hezkuntza-sistemen eta lanbide-heziketako sistemen garapena, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren alorrean, ezinbesteko faktorea dela, ezagutzaren garaian, Europaren etorkizunerako. Gaur egun, argi dute guztiek Europar Batasuna ezagutzaren munduko ekonomia nagusia bilakatu dadin, guztiz ezinbestekoak zaizkiola hezkuntza eta lanbide-heziketa, oinarri-oinarrizkoak baitira hazkunde ekonomikorako, berrikuntzarako, enplegu jasangarrirako eta kohesio sozialerako.

Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da 2002ko martxoaren 14an, Europar Batasuneko enpresa-elkarteen eta sindikatuen artean (UNICE/UEAPME, CEEP eta CES-ETUC) lortutako akordioa; izan ere, akordio horretan, bizitza osoan zehar gaitasunak eta prestakuntzak lantzeko jarduera-esparrua aurreikusten da. Esparru horrek enpresek eta langileek, etengabeko irakaskuntzaren arlo horri dagokionez, elkar banatutako erantzukizuna dutela azpimarratzen du, eta lehentasunezko lau jarduera-alor zehazten ditu: gaitasunen eta prestakuntzen beharrak identifikatzea; horiek aitortzea eta balioztatzea; etengabeko ikaskuntzari buruzko informazioa, laguntza eta orientazioa; eta behar diren baliabideak eskaintzea. Solaskide sozialek (enpresarien eta sindikatuen elkarteak) batasuneko estatu guztietan sustatu behar dute esparru hori maila guztietan.

Bizitza osoan zehar gaitasunak eta prestakuntzak lantzearekin lotutako alorrak zera eskatzen du: lan-denboraren zati bat ikaskuntza bermatzeko eman behar dela. Ildo horretatik, *Etengabeko Ikaskuntzaren Esparru Europar bat gauzatzea* izeneko komunikazioak proposatzen du enpresa guztiek, langile bakoitzeko, 35 ordu (gutxienez) eskaini behar dizkiotela urtero ikaskuntzari.



Europako eskualde-dimentsioa

Toki- edo eskualde-mailan ikaskuntza-hiria (*learning city*) terminoa erabiltzen hasi da, bai eta ikaskuntza-eskualdea edo ikaskuntza-herrialdea ere. Hala ere, gehienetan esan daiteke lurralde horietan ez dagoela benetako ikaskuntza-estrategiarik, baizik eta alor horrekin lotutako ekintza gutxi batzuk edo jarduera zehatz batzuk baino ez direla burutu. Europako zenbait proiektuk¹² etengabeko ikaskuntzari buruzko toki- edo eskualde-mailako estrategiak zehazteko beharrezkoak diren baldintzak edo elementuak aztertu dituzte, eta horietan argi geratu denez, asko dago egiteko oraindik, ikaskuntza-herriez, ikaskuntza-hiriez edo ikaskuntza-eskualdeez hitz egin ahal izateko.

Oro har, argi dago bizitza osoan zeharreko ikaskuntza nozioa Europako iparraldeko herrialdeetan dagoela garatuta, batez ere, eta, beraz, bertan biltzen direla orain arteko ikaskuntza-ekimen eta ikaskuntza-estrategia gehienak. Izan ere, dagoeneko, Europako iparraldean etengabeko ikaskuntza edo bizitza osoan zeharreko ikaskuntza terminoak normaltasunez erabiltzen dira, baina hegoaldean hezkuntzaz eta prestakuntzaz hitz egiten jarraitzen dugu.

Testuinguru horretan, etengabeko ikaskuntza-estrategia abian jartzea erronka da berez, ikaskuntza-lurralde bilakatu nahi duten eskualdeentzat, hirientzat eta estatuentzat; betiere, etengabeko ikaskuntzak gizartearentzat eta ezagutzaren ekonomiarentzat dakartzan erronkei ahalik eta egokien erantzun ahal izateko, eta Europar Batasunak hamarkada honetarako onartutako helburu estrategikoa lortu ahal izateko. Hain zuzen, horregatik ere sortu zen, 2001eko urrian, Etengabeko Ikaskuntzarako Eskualde eta Tokiko Agintarien Europako Elkartea (EARLALL)¹³. Sortzaileen artean Euskadi ere badago.

¹² Esate baterako, *TELS proiektuak – Ikaskuntzaren gizarte europarrerantz* (<http://www.learningcities.net>) eta *PoLLlis – Etengabeko Ikaskuntza Europako hirietan eta lan-aukera berriak egoera okerreanean daudentzat* (<http://www.imfegranada.es/proyectos/prog-europa/leonardo/PoLLlis>)

¹³ Ondorengoak dira EARLALLren helburuak: kideen arteko elkarlana sustatzea, etengabeko ikaskuntzarekin lotutako politikak esparruan; Europar Batasuneko erakundeekin eta etengabeko ikaskuntzaren alorreko erakunde publikoekin eta nazioartean ospe handia duten erakundeekin elkarlanerako harreman estua sortzea, ikaskuntzarekin lotutako politikak toki- eta eskualde-mailan garatzen laguntzeko. Euskadiz gain, ondorengo hauek dira EARLALLren sortzaileak: Toscana (Italia), Gales (Erresuma Batua), Vastra Gotaland (Suedia), Vejle Amt



III. Etengabeko ikaskuntza Euskal Autonomia Erkidegoan

Euskal Autonomia Erkidegoan, Europako beste eskualde batzuetan bezala, departamentuetatik, gaur egun etengabeko ikaskuntzaren paradigma berriaren pean bilduko liratekeen hainbat jarduera sustatu dira, nola araututako irakaskuntzan eta lanbide-heziketan¹⁴, hala esparru ez formaletan edo ez arautuetan¹⁵; eta horiek guztiak hainbat kolektibo dituztela helburu bezala eta, sarritan, zenbait gizarte-eragileren parte-hartzea izanik.

Ikuspegi instituzional batetik, hiritar guztiei bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren bidez prestakuntza jaso eta eguneratzeko **benetako eskubidea** bermatzeko helburua ezarri da; horrela aitortu zuen lehenengo aldiz lehendakariak, 2000ko irailaren 22an Eusko Legebiltzarrean egin zen politika orokorreko eztabaidan¹⁶. Eskubide hori eraginkorra izateko, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko gainerako erakundeek hainbat neurri hartu dituzte; besteak beste, Lanbide Heziketarako Euskal Plana. Halaber, urriaren 16ko 222/2001 Dekretuaren bitartez (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura ezartzen du dekretuak) Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza sortu zuen, eta horren menpeko Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaritza. Horrek, besteak beste, honako eginkizunak izango ditu:

- Ezagutzaren gizarte berrian sartuko gaituen eta horrek dituen aukerez baliatuko den eredu bat ezartzeko beharrezko diren etengabeko ikaskuntzako jarduerak diseinatzea, definitzea eta aplikatzea.
- Bizitza osoan zehar prestakuntza jasotzea edo handitzea eragingo duten lanbide-heziketako eta etengabeko ikaskuntzako politikak zehaztea.

(Danimarka), Renania Palatinado (Alemania), Madona Regiona (Letonia), Balear Uharteak, Sogn Og Fjordane (Norvegia). Elkartea irekita dago kide berriak hartzeko eta, izan ere, askok eta askok interesa adierazi dute.

¹⁴ Ekintza arautuen bilduma *hezkuntza* atarian dago (www.hezkuntza.ej-gv.net)

¹⁵ Lanbide.net (www.lanbide.net), enplegu eta prestakuntzarako atari elkarreragilean, prestakuntza eta ikasketa-eskaintza ez-formalaren zati handi bat biltzen duen datu-basea dugu, etengabe eguneratua eta on-line erabiltzeko prest. 2003ko ekitaldi honetan, abian jarri da www.hiru.com etengabeko ikasketarako ataria, ezagutzaren hainbat arlotako on-line motako autoprestakuntzara zuzendutako edukiekin.



Etengabeko ikaskuntzaren paradigma berrian sar litezkeen jarduera azpimarragarriak esparru bat baino gehiagotan egin dira: zientzia eta teknologian, lanbide-heziketan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT), orientazioan edo oinarrizko prestakuntzan.

Lanbide Heziketako Euskal Plana

Lanbide Heziketako Euskal Planaren (LHEP) –eragile sozio-ekonomikoen parte-hartze duen plana– funtsezko ideietako bat integraltasuna da. Hau da, lanbide-heziketa guztia Lanbide Prestakuntzen Sistemari lotuta egotea. Azken horren helburu nagusia honakoa da: produkzio-jardueraren sektoreetako lan-eremuetan eskatzen diren lan-gaitasunen ezaugarriak, hedadura eta mailak zein diren jakitea. Beraz, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren Behatokiak atzematen dituen eraldaketa teknologikoetatik eta antolaketakoetatik sortutako beharrei erantzungo dieten prestakuntza profesionalak birdefinitzea da, bereziki, asmoa. Oro har, prestakuntza profesionalak gaitasun-esparruka eta bost mailatan antolatuta daude, pertsona orok errazago aurki ditzan erakundeek zein orientatzeko edo aholkatzeko helburu dituzten.

Produkzio-sistemak eta lan-merkatuak eskatzen dituzten gaitasunak biltzen dituzten prestakuntzak ezarri eta gero, hori lortzeko bideak ezartzeko lanei ekiten zaie. Prestakuntzak garrantzi berezia hartzen du jakintza eskuratzeko bide moduan, erreferente bakarra izanik, lanbide-heziketako azpi-sistemen integrazioa antolatzeko aukera baitago. Horrela, prestakuntzara hainbat bidetatik heldu daiteke: prestakuntza araututik, prestakuntza jarraitutik edo lanerako prestakuntzatik. Prestakuntza ezartzeko lana errazteko, Lanbide Heziketa eta Kualifikazioen Euskal Institutuak berak, Lanbide Prestakuntza Sistemari lotutako prestakuntzako **Katalogo Modularra** ezarri du. Katalogoaren gaitasun-unitateek berariazko modulu profesionalak barne hartzen dituzte, bai eta Lanbide Kualifikazioen Euskal Institutuak lanbide-prestakuntza bakoitzarentzat zehaztutako zeharkako beste zenbait ere. Katalogo modular horrek oinarrizko modulu batzuk ditu. Horietako askok jakintzaren gizartean eta ekonomian beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak eta jarrerak biltzen dituzte, besteak beste: komunikazioa, informazioaren

¹⁶ EBko Oinarrizko eskubideen Gutunaren 14. artikulua pertsona guztiei aitortzen die hezkuntzarako eta lanbide-



eta komunikazioaren teknologiak, zenbaki- eta espazio-adierazpena eta esparru zientifiko-teknologikoa.

LHEPk ikaskuntza ez formalen eta informalen bitartez lortutako gaitasunak aitortzea aurreikusten du, eta, horien artean, laneko esperientzia nabarmentzen da. Horretarako, Lanbide Heziketaren Kalitaterako eta Gaitasunak Ebaluatzeko Euskal Agentzia sortu da. Horren eginkizun nagusia pertsona batek ikaskuntza ez formalen eta informalen bidez lortu dituen gaitasunak atzemango eta ebaluatuko dituen tresna bat ezartzea da. LHEPren ezarpenean, testuinguru ez formaletan –batez ere, laneko esperientziaren bitartez– lortutako gaitasunen maila kreditatzeko aukera emango duen sistema bat abiaraztea aurreikusi da. Eta horrela nahi izanez gero, katalogo modularraren arabera prestakuntzak lortu ahal izateko gaitasunei dagozkien moduluak egiteko aukera izango dute. Pertsona bakoitzak lortuko dituen emaitzak eta egiaztapenak gaitasun-txartel pertsonal batean erregistratuko dira, eta testuinguru ez formaletan; besteak beste, laneko esperientzian eta enpresetako prestakuntzan hartutako eskumenen egiaztapena egiteko aukera emango zaio.

Azkenik, Lanbide Heziketaren Kalitaterako eta Gaitasunak Ebaluatzeko Agentziak ebaluatuko du sistema guztia. Euskal sistemak badu abantaila handi bat: lanbide-heziketako ikastetxe integralen sare sendoa dago. Horrek oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak, langabetuak eta lanean ari diren langileak hartzen ditu. Ikastetxe integral horiek potentzial berezia dute berrikuntzarekin lotutako etengabeko ikaskuntzaren ildoaren bultzatzaile bihurtzeko.

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, azpimarragarria da Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioak (**Hobetuz**) prestakuntza-jarduerentzat laguntzak ematen dituela enpresen giza baliabideak espezializatzeko eta eguneratzeko. Laguntza horiek langile autonomoen prestakuntza indibidualari ere ematen zaizkio. Hobetuz hiru alderdiko patronatu batek zuzentzen du eta sindikatuak, enpresarien konfederazioak eta euskal administrazio publikoak hartzen dute parte bertan. Prestakuntza jarraituaren azpi-sistemak, bereziki, enpresa ertain eta handietan besteren kontura lan egiten duten langileen prestakuntzari erantzuten dio, bazkide kooperatibistak barne.

prestakuntzarako eta prestakuntza etengaberako eskubidea.



Langabetuen prestakuntzari dagokionez, 2002-2003 EAeko Erakunde-Arteko Enpleguaren aldeko Planak zehazten duenez, lanerako prestakuntza Lanbide Heziketako Euskal Planaren Prestakuntza Profesionaletako Sistemarekin adostasunean egin behar da.

Etengabeko ikaskuntzaren kontzeptuaren ildoan, ekimen berritzaile moduan honakoak azpimarratu behar dira:

- *Txekeinbide*: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen bateratua. Lanbide-orientazioko zentroek langabezia dauzen pertsoneri eman diezaieketen “txeke” bat diseinatu dute. Txeke horrek norberaren laneratzeko ibilbideak garatzeko aukera ematen du, honakoak bilduz: lanbide-orientazioa, -informazioa eta -prestakuntza (hasiera batean IKTn) eta enpresetan lan-praktikak egitea.
- *Egokituz*: Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen bateratua, BBK Gaztelanbidean Fundazioaren lankidetzarekin. Ekimen horretan, unibertsitateko lizentziatura, Lanbide Heziketako edo Bigarren Hezkuntzako titulu duten langabetuentzat birprofesionalizazio-programa batzuk egin dira, laneratzeko aukera handiagoak ematen dituzten prestakuntzetan trebatu ahal izan daitezten.

IKTei lotutako ekimenak

"Euskadi 2000-hiru" ekimenaren barruan, Eusko Jaurlaritzak “Euskadi Informazioaren Gizartean Plana” martxan jarri zuen. Plan horren xedea, EAeko lurraldean informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) hedatzea eta horien erabilera sustatzea da.

Ekimen orokor horren baitan, beste zenbait ekimen ere jarri dira martxan. Alde batetik, **Konekt@ Zaitetz** programa, Internet erkidego honetako biztanle guztiei hurbiltzeko xedez. Bestalde, **Premia (2000-2003)** programak hezkuntzako sare publikoko ikastetxe guztietan gutxieneko baldintza batzuk ziurtatu nahi ditu azpiegiturei eta ekipamenduei, Interneteko eta Intraneteko konexioei eta irakasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren esparruan prestatzeari dagokionez. Horren bidez, batetik, ikastetxeek informazioaren gizarteak



sortutako zerbitzu-multzo berria eta lan-eredu berriak erabil ditzaten lortu nahi da, eta, bestetik, ahaleginak horretara bideratzea.

Bereziki, Konek@Zaitetz programari dagokionez, EAEko herritar guztiek IKTen esparruan oinarrizko gaitasunak lor ditzaten, euskal erakundeak bete-betean aritu dira herritarrentzat Interneti buruzko ikastaroak antolatzen. Programa horrek, beste neurri batzuen artean, ordenagailuak erosteko eta Internet erabiltzeko, irakasteko eta ikasteko lokalak (**Kzgunea-k**), sortzeko dirulaguntzak ematea aurreikusten du. Eta Kzguneek, hain zuzen, benetako eLearning tokiko ikastetxeen sarean parte hartzeko potentziala dute.

Bestalde, Premia programaren esparruan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat jarduera aurreikusten ditu sare publikoko irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe guztietan: sare lokala instalatzea edo hedatzea, lehendik dauden ekipamendu informatikoak sarera egokitzea, banda zabaleko Interneterako konexioa eta oinarrizko zerbitzuak ematea (posta elektronikoa, web espazioa, FTP...). Eta inbertsio-prozesu horrek eragindako beste zenbait ekimen ere bai; esaterako, erabiltzaileen prestakuntza, azpiegituren eta ekipamenduen mantentze-lana eta edukiak sortzea (zentroaren web orria, web orri hezitzailea).

Beste alde batetik, Gipuzkoan arrakasta handia izan du **Emaweb** programak, Gipuzkoako Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin zuzendutakoak. Programa horren helburua lan-merkatutik aparte dauden emakumeentzako Internet-ikastaroak egitea da. Arabako Foru Aldundiak, berriz, Internet-ikastaroak antolatu ditu erretiroa hartu dutenentzat.

Aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza Sailak eta Lan Sailak) batera, Ikaskuntza Kontuak izeneko proiektua jarri dute martxan, **European Learning Account Project**-en esparruaren baitan. Proiektuen oinarria *ikastekin* txeketegiek osatzen dute (Gipuzkoako lurralde historikoko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikastetxe guztietako irakasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologietan trebatzeko jasotzen duten txeketegia). Parte hartzen duen irakasle bakoitzari txeketegi bat ematen zaio, berak aukeratutako zentro homologatura joan eta IKTen inguruko prestakuntza jaso dezan. Irakasleen %50ak hartu du parte



ekimen horretan eta prestakuntzaren guztizko kostuaren %25 beraiek ordaindu zuten. Gainerakoa erakunde parte-hartzaileek jarri dute.

Prestakuntza-zentroen, Gipuzkoako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean, intranet hezitzaile bat osatu dute, eta han laguntza-materialak eta euskarri informatikoko prestakuntza (e-learning) eskuratu daitezke.

Tutoretza eta orientazioa

Ikasketarako tutoretza, orientazio, aholkularitza edo bitartekaritzari dagokionez, horrek duen garrantzia azpimarratu behar dugu, baina beti ez da erraza lan horiek behar bezala egin ditzaketen profesionalak aurkitzea. Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan arruntak dira jada, baina beharrezkoa litzateke epe ertainera unibertsitateetan ere zabaltzea.

Hezkuntza formaleko prozesua bukatu duten pertsonentzat, zerbitzu hori ematen duten profesionalak eta lekuak gehitu egin beharko lirateke, ahal bada, doan. Administrazioaren ardura da zerbitzu hori eskaintzea. Lan-merkatuan sartzeko orientazioari edo gizarteratzea errazteko laguntza psiko-sozialari dagokienez, berriz, badira profesionalak eta zerbitzu publikoak (lan-zerbitzuak eta gizarte-laguntza); baina, horrez gain, komenigarria litzateke orientazioan eta bitartekaritzan aurrerantz egitea, gero eta gehiago egokitu daitezen ikasketa estrategia indibidualetara.

Honela, EAEn, euskal erakundeek hainbat orientazio-zerbitzu jarri dituzte abian, hala nola zentro laguntzaileen sare bat duen enplegurako Euskal Orientabide Zerbitzua, edo Behargintza Sarea, Bizkaiko tokiko enplegu-zentroak.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren 298//2002 Dekretuak¹⁷ ikaskuntzaren artekari deitzen diren profesionalen lanaren alde egin du. Eskualdean gaia ezagutzen duen profesionala da eta ikasketak ematen eta sustatzen dutenekin harreman estuan lan egingo du; batez ere, egoera okerreanean dauden eta hezkuntza-maila txikiena duten kolektiboek lagunduz. Horretarako, eskualdean dagoen hezkuntza-eskaintza guztiari buruzko informazioa bildu beharko du (ikaskuntza formalarena, ez formalarena eta informala) eta prestakuntza-eskaintzaren eta ikasketa-behar pertsonalen arteko bateratzea sortzen saiatu. Prestakuntza-eskaintzan gutxitasunak, akatsak edo irmotasunak atzemanek gero, prestakuntza eskaintzen dutenen aurrean bitartekari lana egin ahal izango du, beren eskaintza atzemandako beharretara egokitu dezaten. Horrela, azkenik, eskaera sortzeko lan proaktiboa egin ahal izango du, alegia, pertsonen eta gizarte-bitartekariak ikasketa-ekimenak aurkez ditzaten bultzatuko du.

Horrez gain, ikasketa-proiektu lokalak bultzatu dira testuinguru ez formaletan 25 urtetik gorakoentzat, okupatuak, zein langabetuak edo aktibitate gabekoak izan.

Pertsona helduen hezkuntza

Oinarrizko prestakuntzaren eta prestakuntza orokorraren esparruan, EAEko Helduen Hezkuntzako (PHH) zentroek egindako lana azpimarratu behar da. Zentro hauetan pertsona helduek aurrera egin dezakete, alfabetizazio funtzionaltetik hasi eta Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortzera arte. Gainera, prestakuntza-premiei eta –interesei modu egokituagoan erantzuten dieten arautu gabeko prestakuntza-programak eskaintzen dira, prestakuntza kultur eta gizarte-intereseko eduki gehigarrietara zabalduz, eta autoikasketarako ahalmena eta bizitza soziokulturalean zein lanekoan parte hartzeko gaitasuna garatuz.

PHHko zentroek heldu guztiei etengabeko hezkuntzaren bideak zabaltzen dizkiete, baita babesgabeenei eta hezkuntzan edo prestakuntzan parte hartu ez dutenei zuzendutako berariazko ekintzen bidez ere, hala nola etorkinei, euren gizarteratzea errazagoa izan dadin.

¹⁷ 298/2002 Dekretua, 2002ko abenduaren 17koa (EHAA 248 zk., abenduak 30ekoa), 2000ko abenduaren 26ko 284/2000 Dekretua baliogabetzen duena. Horren bidez arautzen dira bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko ekintzak gauzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen (EHAA, 249 zk., 2000ko abenduak 30ekoa).



Azpimarragarriak dira, baita ere, pertsona helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak, jada, 20 urteko istorioa dutenak eta zentro-sare batzuek ematen dituztenak, HABEk edo AEK-k, esaterako. Horrez gain, azpimarratu egin behar da, halaber, 55 urtetik gorakoentzako unibertsitate berria. Hiru lurralde historikoetako campusetan ari da funtzionatzen eta pertsona helduentzako ikastaro egokituak eskaintzen ditu, besteak beste, historia lokalekoak, osasunekoak eta ingurumenekoak. Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) sustatu du, beste erakunde batzuekin lankidetzan.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Plana

Azkenik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2001-2004 Euskal Planak kohesioko eta gizarte-ekimeneko programa bat dauka. Programa horrek ikerkuntzarako gai-esparru moduan hartzen du hutsune digitala gainditzea, bizitza osoko hezkuntza-esparruaren barruan. Plana testuinguru berri baten baitan garatu da, eta honakoek baldintzatu dute, besteak beste:

- Mundua ulertzeko eta ikusteko era berri baten hedapenak (herrixka globala) gizarte berriaren oinarri den testuinguru berri batean (ezagutzaren gizartea);
- Ezagutzaren sormenak eta, are garrantzitsuagoa dena, horren ustiapen eraginkorrak; izan ere, gero eta gehiago, maila guztietan jasangarria den lehiakortasun-iturri bakarra bihurtzen ari da.

Plana hiru esparru handitan egituratuta dago. Horietako bat Orientatu gabeko Oinarrizko Ikerkuntza da. Jarduera-esparru horren berariazko xedea herrialdeko zientzia-komunitateak oinarrizko ezagutza garatzea da, eta horren helburuetako bat ezagutza-maila handitzea da, bere horretan ondasuntzat hartuta. Argi ikusten da etengabeko ikaskuntzaren ikuspegitik ekimen bateratu berriak sustatu behar direla, besteak beste, teknologia- eta ikerkuntza-zentroen, unibertsitatearen, lanbide-hezkuntzako zentroen eta enpresen artean.

Gure autonomia erkidegoan jada abian dauden esperientzia nagusietako batzuen errepasso honek erakusten digunez, praktikan, era intuitiboan –bereziki, Lanbide Heziketako Euskal

Planean–, etengabeko ikaskuntzaren paradigma berritik hurbil dauden kontzeptuak erabili dira. Dena den, euskal erakunde guztiek adostu dituzten eta gizarte zibilaren parte-hartzea duten ikuspegi osoak hartu beharrak ekimen-plan zehatzetan gauzatuko den estrategia diseinatzea eskatzen du.



IV. Euskadi ikaskuntzaren herria bihurtzeko estrategia

Liburu zuri honetan sustatutako ikuspegi berriak honako ezaugarriak dituen politika global edo oso bat hausnartzea, diseinatzea eta inplementatzea dakar: etengabeko ikaskuntzaren dimentsio hirukoitzari –berrikuntza, gizarteratzea eta herritar aktiboak– erantzun, eskura dauden baliabideak mugiarazi eta interesa duten EAEko eragile guztien arteko elkarkidetzak sustatuko dituen. Asmoa adin guztietako pertsonen –aktiboak zein ez-aktiboak izan– beren etengabeko ikaskuntzako ibilbidea diseinatze eta, ibilbide horretan, testuinguru formal, ez formal eta informaletan ikasketa-jarduerak egiteko aukera izatea da. EAEko eragileek, erakundeek eta instituzioek behar bezala dinamizatu, antolatu eta kudeatu beharko dituzte ibilbide eta jarduera horiek.

Etengabeko ikaskuntza hezkuntza-sistemaren¹⁸, lanbide-heziketako¹⁹ sistema integralaren eta ikaskuntza ez formalaren eta informalearen adierazpen anitzen ikuspegi guztiak biltzen dituen esparru berria da. Aldi berean, koherentzia ematen die antolaketari, estrategiari eta erabilerari dagokienez. Esparru berri horrek etengabeko ikaskuntzak dakartzan erronka berriei erantzun beharko die, besteak beste: oinarrizko gaitasun unibertsalak eskuratzea; gaitasun profesionalak egiaztatzea edo kreditatzea; ikasketa-beharrak astertzea; ibilbideak, materialak, metodologiak (batez ere, Learningak dakartzanak) eta ibilbideak diseinatzea; ikasketarako aukera; horren kostuak finantzatzea eta giza baliabideetako inbertsioa hobetzea; teknologia berriak sartzea; orientazio, bitartekaritza eta tutoretza pedagogikoa eta profesionala; mugikortasun geografikoa (hizkuntzen ikasketa barne) eta zenbait ikastetxe garatzea.

EAERI dagokionez, estrategia gizarte osoarentzat egin behar da eta **euskal erakunde guztietatik, gizartearen parte-hartzearekin, bere egitura guztien bidez eta** estamentu guztietatik. Ez soilik etengabeko ikaskuntzarekin erlazionatutako gaitako eskumenak –esaterako, hezkuntza eta prestakuntza, kultura, berrikuntza, informazioaren gizartea, gizarteratzea edo lana– banatuta daudelako eta erakunde horietatik baliabide asko jasotzen

¹⁸ Derrigorrezko irakaskuntza arautua eta derrigorrezkoaren ondokoa, unibertsitatea, pertsona helduen hezkuntza



dituztelako; bai eta estrategiak esparru geografikoari arreta berezia jartzen diolako, etengabeko ikaskuntzaren inguruko balizko sinergien –gizartea, oro har, eta erakundeak eta instituzioak– metatzaile den heinean.

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren estrategiak honakoa dakar:

- (1) Ikuspegi eta eginkizun bateratua hartzea: Euskadi, ikaskuntzaren herria (etengabeko ikaskuntzaren kultura);
- (2) Etengabeko ikaskuntzaren dimentsio hirukoitzari –berrikuntza, gizarteratzea eta hiritar aktiboak– erantzungo dioten helburu estrategikoak zehaztea;
- (3) Hiru helburu estrategikoekin erlazionatutako neurri jakinak zehaztea;
- (4) Helburu zehatzak aztertzeke eta neurtzeke aukera emango duten adierazleak ezartzea;
- (5) Errealitatea ezagutzea, gizarteak helburu horrekiko duen sentsibilitate-maila neurtzea, ikasketa-aukera errealak eta eskura dauden tresnak aztertzea eta ebaluatzea, eta, halaber, hori lortzea zailtzen duten oztopoak identifikatzea: ekonomikoak, sozialak, finantzarioak, kulturalak eta antolaketakoak;
- (6) Aurreikusitako helburuak lortzeke ekimen-plan bat diseinatzea: eskaintzaileak sustatzea, oztopoak ezabatzea eta etengabeko ikaskuntzaren eskaera handitzea; zeinak bilduko dituen esku-hartzen duten erakunde eta entitateak, abian jarriko diren ekintzak, horiek burutzeko metodologia, egutegia eta beharko den aurrekontua.
- (7) Planean adierazitako jardueren emaitzak ebaluatzea;
- (8) Helburuak eta jarduerak berriz zehaztea eta, beharrezkoa bada, hobetzea.

Ikuspegi bateratua: Euskadi, ikaskuntzaren herria

Ikaskuntzaren kultura sortzea da helburua. Zentzu horretan, garrantzitsua da pertsonak, erakundeak eta instituzioek etengabeko ikaskuntzaren beharrak eta abantailak ikustea; halaber, ikusmolde berriaren ondorio eta potentzialtasun handiak ezagutaraztea, irakaskuntzaren, prestakuntzaren, ezagutzaren, kulturaren eta ikerkuntzaren adierazpen guztiei dagokienez.

¹⁹ Hasierako prestakuntza edo arautua, etengabekoa eta okupazionala (ikastetxe integralek egiten duen eskaintza



Euskadin bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren ikuspegiarekin bat egiten duten instituzio, erakunde, enpresa eta pertsona guztiak beren eginkizuna eta jarduerak berriz zehaztuko dituzte, ikusmolde berriaren baitan kokatzeko. Bereziki garrantzitsua da pertsona guztiak etengabeko ikaskuntzaren kontzeptua bereganatzea eta aplikatzea, nola beren bizitza pertsonalean, hala lanean. Eta, funtsezkoa da irakaskuntzaren, ikasketaren edo kultura-jardueren alorrean lan egiten duten pertsona guztiak etengabeko ikaskuntzaren ikusmoldea hartzea eta kokatuko diren ingurune geografikoan eredu eta adibide izango den diskurtso koherente bat egitea. Hori horrela, Euskadik ikaskuntzaren herri moduan aurrera egin ahal izango du, ezagutzaren gizarte honetan.

Ildo horretan pauso irmoz aurrera egiteko, kultura berri hori esparru politikoan eta instituzionalean ardura duten pertsona guztiak konpartitu eta sustatu behar lukete, bai eta hainbat gizarte-esparrutan ardurak dituzten pertsonak ere, esaterako: sindikatuetakoa buruzagi eta enpresari garrantzitsuenek, komunikabideek eta, bereziki, hezitzaileek.

Helburu estrategikoak

Fase erabakigarria honetan datza: Euskadi ikaskuntzaren herritzat ikusteko aukera emango duten, eta, aldi berean, etengabeko ikaskuntzaren dimentsio hirukoitzari –berrikuntza, gizarteratzea eta hiritar aktiboak– erantzungo dioten helburu estrategikoak zehaztea.

Euskadi ikaskuntzaren herritzat hartzen duen ikusmoldearen ildoan instituzioek hartu behar duten eginkizunaren funtsa hau da: **Euskadin bizi diren pertsona guztiak, hiritarrek, ikasteko aukera erreala izatea, era desberdin batean, malguagoa eta beren beharretara egokitua.** Hain zuzen ere, hori da kontua; alegia, jende gehiago erakartzea ikasketara, gero eta atseginagoa eta sozialki onartuagoa eta balioztatuagoa eginez. Halaber, eskuragarritasun fisikoaren eta finantzarioaren oztopoak gainditu beharko dira, eta lurraldean ikasteko aukera errealei buruzko informazioa eta behar den orientazioa ziurtatu, ikasketa behar indibidualak zein diren jakiteko eta horiei erantzun ahal izateko, prestakuntza-eskaintza ahalik eta era onenean

partziala)



egokituz.

Eginkizun horretatik, zenbait **zehar-helburu estrategiko** ondorioztatu daitezke: ikaskuntzaren balioa handitzea, adin guztietako pertsonen ikasteko aukera izan dezaten erraztea, baliabideak era eraginkorrean ezartzea, ikasketa-aukerak pertsoneri hobeto hurbiltzea, ikaskuntzan berrikuntza eta kalitatea sustatzea (edukietan eta metodoetan). Eta hori guztia **hiru helburu bertikalei** dagozkien bizitza guztian zeharreko ikaskuntzaren hiru ildoei lotuta: lehiakortasunerako eta berrikuntzarako ikaskuntza, gizarteratzeko ikaskuntza eta hiritar aktibo bihurtzeko ikaskuntza.

Berriarazko helburuak eta adierazleak

Helburu estrategiko bakoitza helburu berriarazkoagoetan gauzatzen da:

Berrikuntzari eta lehiakortasunari lotutako berriarazko helburuak:

1. Hezkuntza-maila guztietan, unibertsitarioan zein ez-unibertsitarioan, bikaintasuna eta erabateko kalitatea helburutzat ezartzea;
2. Zenbait bidetatik eskuratutako ezaguerak eta gaitasunak kreditatzea eta egiaztatzea, batasuneko arteztarauen ildoan;
3. Gaitasunak gardenak izan daitezen laguntzea eta gaitasunak kreditatzea eta Curriculum Vitae europarraren eremuan sartzeari;
4. Ikasketa zientifikoaren eta teknikoaren ildo praktikoa ziurtatzea, praktiken, proiektuen eta enpresetan eta organismoetan egindako egonaldien bidez;
5. Bigarren hezkuntzatik, matematika-, zientzia- eta teknika-gaien inguruko ikaskuntza sustatzea;
6. Gazteei (batez ere, emakumezkoen) esparru zientifikoa hurbiltzea, ikaskuntza erakargarria bihurtuko duten metodo berriak erabiliz, ibilbide erakargarriak eta malguak tutorizatuz eta diseinatuz;
7. Unibertsitatean, zientzia- eta teknika-gaietan aritzeko aukera sustatzea, beste gai batzuetatik abiatuta (ibilbide erakargarriak);



8. Tokiko ikastegietan zientzia-materialak sustatzea, bereziki IKTak erabiliz;
9. Enpresak ikasketa-erakundeak bihurtu daitezela sustatzea;
10. Garapen teknologikoetan eta teknologia aurreratuetan, langileen prestakuntza jarraitua ziurtatzea eta sustatzea, eta horien birziklatzea ziurtatzea, lan-merkatuan langile gaituen beharrak estalita egon daitezen;
11. Ikaskuntza-mota guztietan ikerkuntza laguntzea, bai eta ikerkuntza-proiektuak sustatzen dituzten lankidetzak-erakundeak ere;
12. IKTen eta Learningaren erabilera sistematikoa sustatzea, eta helburu horretara egokituta dauden adin guztietarako erabilgarriak diren materialak eta metodoak garatzea;
13. Prestakuntza eta irakaskuntza EBko hizkuntza nagusietan egin ahal izatea sustatzea;
14. Eskaintza egokitzea, ordutegi, egutegi eta prestakuntza-modulu malguen eta konbinagarrien ikuspegitik, ikerkuntza- eta ikasketa-zentroetan ahalik eta jende gehienak ikasi ahal izan dezan,

Gizarteratzeari lotutako helburu zehatzak:

15. Ezagutzaren gizarlean, pertsonen garapen pertsonalerako eta profesionalerako behar dituzten oinarrizko gaitasunak definitzea;
16. Biztanleria guztiari –bereziki, egoera okerrean daudenei–, oinarrizko gaitasun horiek eskuratzeko eta garatzeko aukera ziurtatzea;
17. Pertsona guztiei eta, lehentasunez, aukera gutxien dutenei, informazioa, bitartekaritza, orientazioa eta tutoretza jasotzeko aukera ziurtatzea;
18. Hainbat esparrutatik, etorkinek oinarrizko prestakuntza izateko aukera erraztea –batez ere, gizarte- eta hezkuntza-esparruan–, gizarteratzen laguntzeko;
19. Informazioa hartzeko aukera hobestea, pertsona guztiei IKTetan oinarrizko gaitasuna emanez, aukera gutxien dutenei, bereziki;
20. Hezkuntza-sistema oinarrizko titulurik gabe uzten duten pertsona-kopurua murriztea, eta pertsona horiei oinarrizko gaitasunak izateko aukera ziurtatuko dieten bide egokiak bilatzea;
21. Oinarrizko gaitasunen eta gaitasun profesionalen inguruan lortutako ezaguera eta jarrera



- egiaztatzea, testuinguru ez formaletan eta informaletan hartutakoak barne;
22. Gizarte-eragileak eta bitartekariak bultzatzea, ikasketaren sustapenean lagundu dezaten eta lan-merkatuak gaitasunak –bereziki, prestakuntza gutxieneko pertsonek eskuratutakoak– onartu ditzan;
 23. On line prestakuntza sustatzea, kalitate-bermeduna, malgua eta gutxitasunak dituzten edo ikasketarako aukera gutxi dituzten eremuetako pertsonei aukera ematen diena;
 24. Beharrezko diren baliabide eta inbertsio publiko eta pribatuak posible bihurtzea (baliabide horien inbertsioak bultzatuko dituzten neurri fiskalak ere sar daitezke).

Hiritar aktiboei lotutako helburu zehatzak²⁰:

25. Pertsonek bizitza guztian zehar honakoetan parte har dezaten bultzatzea: gizarte-, sozioekonomia- eta politika-gaietako erakundeetan (GKEak, boluntarioak, talde politikoak, sindikatuak, enpresari-elkarteak, etab.) eta kultura-fundazioetan zein –elkarteetan;
26. Pertsona guztiei beren gizarte-, ekonomia- eta politika-erakundeei buruzko informazioa ematea, eta gizarteko kide aktibo diren heinean, beren eskubideen eta betebeharren berri ematea;
27. Gure ingurunearen, hizkuntzen eta kulturen ezagutza sustatzea, etorkinak direnen artean, bereziki;
28. Ikaskuntza-jarduerak sustatzea, bizitzaren aldi batetik besterako trantsizioa dinamikoa eta aktiboa izan dadin;
29. Testuinguru informaletan (lan boluntarioa, elkarteak, klubak, fundazioak) lortutako gaitasunak egiaztatzeke aukera ematea.

Adierazleak (de realización, de resultado y de impacto) helburu zehatz horietako bakoitzaren arabera eta Europako Batzordeak egingo dituen adierazle-proposamenekin

²⁰ Esperientzia gutxi dagoen esparrua dela adierazi behar da. Dena den, ikasketa informalarri lotutako jarduera askok garrantzi berezia dute hiritar aktiboentzat. Kontuan izan, esaterako, hauek: boluntarioak, auzo-elkarteak, erretiratu-elkarteak edo ikasleen gurasoenak, giza eskubideen eta bakearen defentsarako elkarteak, kontsumitzaile-elkarteak edo eta kultura-, kirol- edo gastronomia-elkarteak edo -fundazioak.



adostasunean garatuko dira. Horren funtzioa lortutako aurrerapena eta helburuen lorpena neurtzeko aukera ematea da, eta, aldi berean, horiek ebaluatzeko aukera ematea. Oro har, etengabeko ikaskuntzako jarduerak egiteko prest dagoen pertsona-kopurua eta jada egiten ari direnena neurtu behar dute; eta hori guztia sektorea, sexua, adina, lan-mota, helburu horretarako erabiltzen dituzten baliabideak eta abar kontuan hartuta.

Errealitatea ezagutzea: baliabideen, oztopoen, erronken, ahultasunen mapa

Etengabeko ikaskuntzaren errealitate estatistikoa ahalik eta zehatzen ezagutzea funtsezkoa da: ikasketako zein erakunde dauden, zeintzuk diren eskaintzen dituztenak, zeinek ekiten dion benetan ikaskuntza-jarduerari eta zein esparrutan, zenbat diru eta denbora ematen duen jendeak ikasketan, zein jende-motak nahi duen ikasten jarraitu, jendeak zein ikaskuntza-jarduera egin nahi dituen, oztopoak non dauden (denbora, familiako betebeharrak, irisgarritasun geografikoa, kostuak, kreditazio eza, informazio eza, ase gabeko beharra orientazioan, eta bestelakoak).

Gainera, erakunde eta departamentu bakoitza zertan ari den zehatz-mehatz jakin behar da. Ahal den neurrian, tokian-tokian testuinguru ez formaletan egiten dena jakin behar da, eta hori zailagoa da tokiko landa-lan oso zehatza egin behar delako, lekuan bertan informazioa jasoz (horretarako, hain zuzen ere, ikaskuntza-bitartekarien irudia aurreikusi da 298/2002 dekretuan). Hortik sortuko den baliabide-mapa etengabe eguneratu beharko da eta interesa duten guztiek kontsultatu ahal izango duten datu-base moduan eskuragarri egon beharko du.

2004-2006 ekintza-plana

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren esparruan lan egiten duten eta horretan ekimenak egiteko eskumenak dituzten erakunde guztiek plan estrategiko bat landu beharko dute. Plan horretan, bakoitzak eskumena duen lurraldean, esparru horretan hartuko diren neurriak, programak eta helburuak adieraziko dira, eta, halaber, neurri horietako bakoitza aplikatzeko aurreikusitako egutegia ere adieraziko da. Jarduera-aldia 2004-2006 hirurtekoa izango da.



Liburu Zuri honetako edukiekin bat eginez, ikaskuntzako instituzio edo erakunde bakoitzak diseinatuko duen plan estrategikoak lehentasunak ezarri beharko ditu helburuen artean, eta jarduera-neurri zehatzak proposatu beharko ditu aukerak indartu eta oztopoak kentzeko. Plan horiek honakoak kontuan hartuta diseinatuko dira: lehentasun politikoak, eskumenak eta aurrekontu-baliabideak, erakunde-arteko jarduerak, gizarte zibilaren ekimenak, eta lankidetzako elkarte publikorik edo pribaturik badagoen.

Jarduerak ebaluatzea

Plan estrategiko horiek urtero ebaluatuko dira, eta horren ondoren, proposatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren hobekuntzak proposatuko dira. Oro har, koordinazio irekiaren metodoari jarraitzen zaio: xede horrekin berariaz ezarritako helburuak eta adierazleak zehaztea, lortuko diren emaitzak neurtzeko eta alderatzeko. Emaitzarik onenak eta horiek lortu dituzten jarduerak atzemango dira, eta beste instituzio batzuek jarraitu ahal izango dituzten praktika onen eredu moduan azpimarratuko dira. Helburuak lortu ez dituzten jarduerak ere adieraziko dira, eta hori gertatzeko oztopoak zein diren atzeman beharko da. Azkenik, instituzio parte-hartzaile guztiak emaitzen elkar-ebaluazioan inplikatu dira, eta izandako esperientziaren arabera, helburuak berriz zehaztuko dituzte. Horrez gain, plan estrategiko guztien azken-ebaluazio globala egingo da.

Estrategiak berriro zehaztea

Estrategiak berriro zehaztea, idealki, honakoa da: errealitate jakin batetik abiatuta planteatutako jarduera-ildoen bidez lor daitezkeen helburuak zehazteko prozesuaren ondorioa. Lortutako esperientziak helburuak berriro zehazteko behar diren datuak ematen ditu.